

Alaine Agirre Gorostiaga

*Oñati,
Gipuzkoa
(2008)*

Aurkibidea

Biografia



Txantxiku ikastolako ikaslea, hitanoari buruzko iritzia jasotzeko elkarrizketatu dugu, Izaro Agirre ikaskidearekin batera. Guraso biak Oñatikoka ditu; ama hika egiten saiatzen da. Elkarrizketa egin genionean Batxi-1eko ikaslea zen.

Zintak

ONA-316

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altolagirre Etxeberria, Maddi - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-05-06
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hitanoaren egoera Oñatin

- **Erref:** ONA-316/004
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Garai baten hika gehiago erabiltzen zen Oñatin, baina galduz joan da. Orain lantzen ari diren proiektuarekin biziberritu nahian dabilta. Mutilen artean gehiago erabiltzen da. Euren inguruan ez dute asko entzuten. Ez dute ohiturarik lagunartean hika egiteko. Eskolan ere ez da entzuten, hika lantzeko saioetatik kanpo.

2. Amarekin hika praktikatzen

- **Erref:** ONA-316/005
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Alaineren aititak hika egiten du gertukoekin, baina berari ez dio egin izan. Amak egiten dio pixka bat, biek praktikatzearren.

3. Hitanoaren ospe txarra

- **Erref:** ONA-316/007
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa hizkera zakartzat hartu izan da. Iratiri zuka baino zakarragoa iruditzen zaio eta agian horregatik erabili izan dute errazago mutilek. Alaineri, berriz,

polita iruditzen zaio eta, izan duen ospe txarraren erruz, ez zaiola duen balioa eman pentsatzen du. Oraindik ere entzuten dituzte hikari buruzko iruzkin ezkorrak.

4. Hika, lagunarterako

- **Erref:** ONA-316/010
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gaur egun jada hika egitea ez da baserritar izatearekin lotzen, normalizatuagoa dagoela uste dute. Orain konfiantza izatearekin lotzen dute gehiago. Mutilek erabiltzen dute parranda-giroan.

5. Hitanoaren genero-marka; errespetuz jokatu

- **Erref:** ONA-316/011
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hitanoak generoa markatzen du. Hizketakideari toka, noka ala zuka egitea nahi duen galdetuz gero eta errespetuz jokatuz gero, ez litzatekeela arazorik egon behar uste dute.

6. Hitanoaren inguruko iritzia

- **Erref:** ONA-316/013
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren inguruko iritzia.

7. Hika jakitea, gehigarria

- **Erref:** ONA-316/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika jakitearen garrantzia, euskarari dagokionez. Gehigarri bat dela uste dute, nortasuna ematen duena, eta euskara aberatsagoa duela hika dakienak. Antzuolako ikerketan gazteek esandakoaren inguruko iritzia.

8. Oñatin kalean egiten da hikaren transmisioa

- **Erref:** ONA-316/018
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:19:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Oñatin 16-18 urte ingururekin hasten dira gazteak -batez ere mutilak- hika, zaharragoei entzunda, kalean edo parranda-giroan. Horrek dakarren arazoa da batzuetan zuzenak ez diren esaldiak ere zabaltzen direla, adibidez "xaukena xauk". Toka entzuten da batez ere; noka ia batere ez.

9. Hika ikastekoa saioak I

- **Erref:** ONA-316/020
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika ikasteko saioak egin dituzte eskolan. Inork ez zekienez hika, saioak barregarriak iruditu zaizkie. Hikako txuleta eta liburuxka baliagarriak egin zaizkie. Garrantzitsua ikusten dute oinarritzotik hasia, oso astuna ez egiteko. Hika ondo dakien norbait aldamenean izatea bota dute faltan, zuzen ari diren ala ez ziurtatzeko. Nolako ariketak egin dituzten.

10. Hika ikasteko saioak II

- **Erref:** ONA-316/022
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:25:11. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Eskolan egin dituzten saioek hitanoaren inguruan gehiago jakiteko eta kontzientzia pizteko ere balio izan diete.

11. Hika ikasteko ahalegina

- **Erref:** ONA-316/023
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:26:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika ikastea jarrera kontua dela uste dute. Jende askok nahiago du dakienarekin aurrera egin, esfortzua egin baino. Alaine Appahi-rekin hasi zen. Gero beharrezkoa da praktika. Amarekin praktikatzen du, gurasoei egitea gaizki ikusita egon den arren.

12. Hitanoaren "erabilera-arauak"

- **Erref:** ONA-316/024
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:26:59. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoak tradizioz "erabilera-arau" batzuk izan ditu. Arau horiek momentu jakin batean haustea ondo ikusten dute, hika praktikatzeko edo ikasteko baldin bada.

13. Hika jarduteko gogoz

- **Erref:** ONA-316/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:30:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Eguneroko elkarriketetan ez dute hika erabiltzen. Hala ere, tarteka sartzen dituzte esaldi solte batzuk. Gustatuko litzaieke hika egiteko beldurra kendu eta normaltasunez hitz egitea.

14. Noka errazago

- **Erref:** ONA-316/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:31:23. **Bukatu:** 00:32:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Eskolan hika ikasteko egin dituzten saioetan toka/noka biak ikasten dituzte. Alaineri toka egitea gehiago kostatu izan zaio, noka errazago ateratzen zaio, noka interes handiagoa jarri izan duelako. Iratiri biak antzera.

15. Hika ikasteko prozesuan, hanka sartzea zilegi

- **Erref:** ONA-316/030

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:33:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika egiterakoan, askotan, okerreko egiturak erabiltzen dira, esaterako, mendeko esaldiko aditzean ere hika-marka jartzea. Garrantzia ematen diote zuzentasunari. Hala ere, ikasteko prozesuan, garrantzitsua ikusten dute hika egiten ausartzea, guztiz ondo egin ez arren eta tarteka hanka sartu arren.

16. Hika biziberritzeko, zer?

- **Erref:** ONA-316/031
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:33:46. **Bukatu:** 00:36:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika biziberritzeko zer ikusten duten beharrezko edo garrantzitsu: kontzientziazioa, ikastaroak, Euskaraldia hika, eskoletako saioak... Gazteak kontzientziaztea. Ahalegin bat egin beharra dago ikasteko.

17. Hikako esaldi solteak

- **Erref:** ONA-316/033
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:36:31. **Bukatu:** 00:37:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika esaten dituzten esaldi solteak. Alaine saiatzen da amarekin elkarriketa osoa hika egiten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com